



Gipuzkoako
Foru Aldundia

Gipuzkoako Foru Aldundiari fakturak bidaltzea

Fakturak Gipuzkoako Foru Aldundian

Atal honetan jasotzen den informazioa aplikatzekoa da, soil-soilik, hornitzaileek Gipuzkoako Foru Aldundiari bidaltzen dizkioten fakturei dagokienez.

- [Fakturen erregistroa](#)
- [Paperezko fakturak](#)
- [Faktura elektronikoen zehaztapenak](#)
- [Faktura elektronikoak sortzeko aplikazioa behera kargatzea](#)
- [Faktura elektronikoak bidaltzea](#)
- [Hornitzaileentzako kontsulta: haien fakturen egoera](#)
- [Hornitzailearen datuak](#)

Eranskina: Faktura elektronikoak bidaltzeko web-zerbitzuaren zehaztapenak

Fakturen Erregistroa

Jasotzen diren faktura guztiak, hala paperezkoak nola faktura elektronikoak, Ogasun eta Finantza Departamentuko Sarrera eta Irteeren Erregistroan eta Fakturen Kontabilitate Erregistroan erregistratzen dira.

Paperezko fakturak

Paperezko fakturak posta bidez bidali edo eman beharko dira Kontabilitate Zerbitzuan, Fakturen Erregistroaren arduraduna den aldetik.

Ogasun eta Finantza Departamentua

Kontabilitate Zerbitzua

[Erriotasburu pasealekua, 2. 20018. Donostia](#)

Telefonoa: 943 113 259

Fakturak itzultzea.

Fakturan jasotzen den gastua eragin zuen departamentu kudeatzailearen iritziz faktura ordaintzea bidezkoa ez denean, jasotako faktura itzultzea proposatuko dio Kontabilitate Zerbitzuari, eta proposamen horretarako arrazoiak eman beharko ditu.

Kontabilitate Zerbitzuak faktura hornitzaileari itzuliko dio, eta departamentuak faktura itzultzeko alegatu dituen arrazoiak jakinaraziko dizkio. Faktura posta bidez itzuliko zaio hornitzaileak emandako helbidean.

Fakturaren hartzaile den departamentuaren datuak.

- Hornitzaileak eskari bat jaso badu, Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako eskari-zenbakia jaso beharko du fakturan.
- Datu hauek adierazi behar dira fakturan: kontabilitate bulegoa, organo kudeatzailea eta unitate izapidetzailea. Departamentu kontratatzaileak kontratistari eman behar dio informazio hori. Gipuzkoako Foru Aldundiko unitate administratiboen kodeak (kudeatzailea, izapidetzailea eta kontablea) "Faktura elektronikoen sarrera-puntu orokorrari atxikitako entitateen eta haien unitate izapidetzaileen direktorioa" atalean jasota daude.
- Horrez gain, fakturan datuak jaso behar dira harremanetarako pertsona zein den, edo obra, zerbitzua, hornikuntza edo laguntza teknikoa zer dependentzia edo eraikinetan egin den identifikatzeko.

Faktura elektronikoen zehaztapenak

Faktura elektronikoaren formatua

Abenduaren 1eko 632/2014 Foru Aginduak Gipuzkoako Foru Aldundiari faktura elektronikoak egiteko erabili behar diren estandarrak eta faktura horiek bidaltzeko baldintzak eta prozedura onartu ditu.

Gipuzkoako Foru Aldundiak faktura elektronikoak onartzeko, hornitzaileek Facturae formatua erabili behar dute, 3.2, 3.2.1 edo 3.2.2 bertsioan. Gainera, faktura horiek bidali behar dira bitarteko elektronikoak erabilia (fitxategi informatikoak) edo bitarteko telematikoak erabilia (ordenagailu batetik bestera), betiere ziuertagiri balioztatuen bidez modu digitalean sinatuta.

Bestelako formatuak, PDFa kasu, ez dira onartuko baliozko faktura elektroniko gisa.

“Facturae” formatuaren bertsioei buruzko informazioa helbide honetan dago eskura:

<http://www.facturae.gob.es/formato/Paginas/formato.aspx>

Sinadura elektronikoa

Sinadura elektronikoko formatua XML-Advanced Electronic Signatures (XAdES), ETSI TS 101 903 zehaztapenera egokituko da. XAdES 1.2.2. eta 1.3.2 bertsioak onartuko dira, baita sinadurarako honako luzapen hauek ere: XAdES-EPES eta XAdES-XL.

Faktura elektronikoak bidaltzea

Bitarteko hauek erabil daitezke faktura elektronikoak Kontabilitate Zerbitzuari bidaltzeko:

- Protokolo seguru bidezko web-zerbitzua, URL honekin:
"https://w390w.gipuzkoa.net/WAS/HACI/HFAFacturaElectronicaWEB/services/FacturaElectronicaService".
- Egoitza elektronikoko “Faktura elektronikoak bidaltzea” sekzioan eskatutako datuak osatuz.

Orain arte, GFAk onartu izan du faktura elektronikoak posta elektronikoz bidaltzea. Aurrerantzean, fakturak jasotzeko era hori desagertzen da, araudi berriarekin bat.

Garrantzitsua: komeni da faktura elektronikoa bidali aurretik postaren sinadurari dagozkion fitxategi guztiak ezabatzea (pie-email.gif, info.gif...). Horretarako, eta ahal den heinean bederen, faktura soil-soilik igortzen saiatu beharko da. Hala egin ezean, fitxategi horiek fakturari erantsitako dokumentu gisa erregistratuta geratuko dira, eta horien tratamendu okerra eragingo dute.

Hartu izanaren baieztapena

Behin faktura jaso ondoren, igorleak faktura onartu dela edo, hala badagokio, baztertu dela jakinaraziko duen erantzuna jasoko du.

Garrantzitsua: faktura jaso izanaren baieztapena jaso ahal izateko, mezuak (erantzunak) hartzea onartu beharko du faktura elektronikoa igortzeko hornitzaileak erabiltzen duen helbide elektronikoa.

Foru Aldundiari igortzen zaizkion faktura elektronikoen atal honetan aurreikusten diren zehaztapenak eta prozedurak betetzen ez badituzte, ez dira igorritzat joko.

Faktura elektronikoa itzultzea


Fakturan jasotzen den gastua eragin zuen departamentu kudeatzailearen iritziz faktura ordaintzea bidezkoa ez denean, formatu elektronikoa jasotako faktura itzultzea proposatuko dio Kontabilitate Zerbitzuari, eta proposamen horretarako arrazoiak eman beharko ditu.

Kontabilitate Zerbitzuak formatu elektronikoa igorritako faktura hornitzaileari itzuliko dio, eta departamentuak faktura itzultzeko alegatu dituen arrazoiak jakinaraziko dizkio. Itzultzea telematikoki egingo da, faktura Foru Aldundiari igortzeko unean faktura elektronikoa igorleak jasotzeko duen helbide elektronikora igorrita. Horrenbestez, hornitzaileak faktura elektronikoa igortzeko hautatzen duen helbide elektronikoa nahitaez onartu beharko du mezuak (erantzunak) jasotzea.

Faktura elektronikoa sortzeko aplikazioa behera kargatzea

ef4ktur programa Euskal Autonomia Ekidegoko Foru Aldundien ekimena da. Haiei faktura igortzen dietenei faktura elektronikoko soluzioa dohainik eskaintzea du helburu, enpresek elkarrekin eta euskal administrazioekin erraz eta modu praktikoan lan egin dezaten.

ef4ktur programa enpresa txiki eta ertainei (ETE), mikroETEEi eta langile autonomoei zuzenduta dago. Programa diseinatzean, aintzat hartu da gardentasuna eta enpresa horiek gaur egun dituzten informazio sistemekiko bateragarritasuna bermatu beharko dutela haren lizentziak eta iturri-koderako sarbideak. Hori dela eta, erabiltzaileak zerbitzu hau baliatu ahal izan dezan, ef4ktur bateragarria izango da Windows, Linux eta Mac sistemekin, haren lan-ingurunea edozein izanik ere.

efaktur dohainik karga daiteke behera programa banatzeko eta eusteko gaitutako web-orri honetatik: <http://www.ef4ktur.com/index.php?lang=es> 

ef4ktur softwareak Facturae formatuan egiten ditu fakturak, hori baita Gipuzkoako Foru Aldundiak erabiltzen duen formatua. Behin faktura elektronikoki sinatu ondoren, hornitzaileak automatikoki bidali ahal izango dio Gipuzkoako Foru Aldundiari, Foru Aldundiaren beraren fakturazio elektronikoko web zerbitzuaren bidez.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren web-zerbitzuak faktura elektronikoa jasotzen duenean, igorleari erantzungo dio eta jakinaraziko dio faktura behar bezala jaso den edo ez.

Hornitzaileentzako kontsulta: haien fakturen egoera

Kontsulta Zerbitzu honetan, Foru Aldundiari egindako obren, hornikuntzen edo zerbitzuen ondoriozko fakturen tramitazioaren berri emango da, ordaintzeko dauden fakturena zein ordaindu diren fakturena. Ordaindu ez badira, egindako tramiteak eta egiteko daudenak jasoko dira. Era berean, ordaintzeko aurreikusitako dataren berri emango da.

Zerbitzu hori erabiltzeko erregistratuta egon beharko da. Horretarako, gako operatiboa erabili beharko da, edo Gipuzkoako Foru Aldundiak onartutako ziurtagiri digitalak. Ogasun eta Finantza Departamentuaren zerga-kudeaketarako baimenetan erabiltzen den mekanismo bera aplikatuko da ordezkariak baimentzeko garaian.

Hornitzailearen datuak

Zerbitzu honen bidez hornitzaileek haien identifikazio-datuak kontsultatu ahal izango dituzte, eta horiek aldatzea eskatu ahal izango dute: izena, helbidea, telefonoa, harremanetarako pertsona, kontu korrontea, eta abar. Hornitzaile berria bada, bere datuak bidali ahal izango ditu dagokion hornitzaile-fitxari alta emateko.

Datu horiek soil-soilik erabiliko dira enpresek eta profesionalek Gipuzkoako Foru Aldundiari obra, zerbitzu eta horniduren ondorioz aurkezten dizkieten fakturak tramitatzeko eta ordaintzeko. Ez dira erabiliko Ogasun eta Finantza Departamentuaren eta zergadunen arteko zerga-harremanetarako.

Zerbitzu hori erabiltzeko erregistratuta egon beharko da. Horretarako, gako operatiboa erabili beharko da, edo Gipuzkoako Foru Aldundiak onartutako ziurtagiri digitalak. Ogasun eta Finantza Departamentuaren zerga-kudeaketarako baimenetan erabiltzen den mekanismo bera aplikatuko da ordezkariak baimentzeko garaian.

Eranskina: Faktura elektronikoak bidaltzeko web-zerbitzuaren zehaztapenak

```
<?xml version="1.0" encoding="UTF-8" ?>
- <wsdl:definitions targetNamespace="http://services.hfacturaelectronica.g235.izfe.net"
  xmlns:impl="http://services.hfacturaelectronica.g235.izfe.net" xmlns:intf="http://services.hfacturaelectronica.g235.izfe.net"
  xmlns:wSDL="http://schemas.xmlsoap.org/wsdl/" xmlns:wSDLsoap="http://schemas.xmlsoap.org/wsdl/soap/"
  xmlns:wsi="http://ws-i.org/profiles/basic/1.1/xsd" xmlns:xsd="http://www.w3.org/2001/XMLSchema">
- <wsdl:types>
- <schema targetNamespace="http://services.hfacturaelectronica.g235.izfe.net"
  xmlns="http://www.w3.org/2001/XMLSchema" xmlns:wSDL="http://schemas.xmlsoap.org/wsdl/"
  xmlns:xsd="http://www.w3.org/2001/XMLSchema">
- <element name="uploadFileResponse">
- <complexType>
- <sequence>
  <element name="uploadFileReturn" nillable="true" type="xsd:string" />
</sequence>
</complexType>
</element>
- <element name="uploadFile">
- <complexType>
- <sequence>
  <element name="idioma" nillable="true" type="xsd:string" />
  <element name="nameFacturae" nillable="true" type="xsd:string" />
  <element name="idFacturae" nillable="true" type="xsd:string" />
  <element name="namePDF" nillable="true" type="xsd:string" />
  <element name="idPDF" nillable="true" type="xsd:string" />
  <element name="namesAdjuntos" nillable="true" type="xsd:anyType" />
  <element name="idsAdjuntos" nillable="true" type="xsd:anyType" />
</sequence>
</complexType>
</element>
</schema>
</wsdl:types>
+ <wsdl:message name="uploadFileRequest">
- <wsdl:message name="uploadFileResponse">
  <wsdl:part element="impl:uploadFileResponse" name="parameters" />
</wsdl:message>
- <wsdl:portType name="FacturaElectronicaService">
- <wsdl:operation name="uploadFile">
  <wsdl:input message="impl:uploadFileRequest" name="uploadFileRequest" />
  <wsdl:output message="impl:uploadFileResponse" name="uploadFileResponse" />
</wsdl:operation>
</wsdl:portType>
- <wsdl:binding name="FacturaElectronicaServiceSoapBinding" type="impl:FacturaElectronicaService">
  <wsdlsoap:binding style="document" transport="http://schemas.xmlsoap.org/soap/http" />
- <wsdl:operation name="uploadFile">
  <wsdlsoap:operation soapAction="" />
- <wsdl:input name="uploadFileRequest">
  <wsdlsoap:body use="literal" />
</wsdl:input>
- <wsdl:output name="uploadFileResponse">
  <wsdlsoap:body use="literal" />
</wsdl:output>
</wsdl:operation>
</wsdl:binding>
- <wsdl:service name="FacturaElectronicaServiceService">
- <wsdl:port binding="impl:FacturaElectronicaServiceSoapBinding" name="FacturaElectronicaService">
  <wsdlsoap:address
    location="https://w390w.gipuzkoa.net:443/WAS/HACI/HFAFacturaElectronicaWEB/services/FacturaElectronicaService" />
</wsdl:port>
</wsdl:service>
</wsdl:definitions>
```